

2022-10-25

PRENTSA-OHARRA

HEZKUNTZA PUBLIKOKO ORDEZKARIEK OSORIK BAZTERTU DUTE HEZKUNTZA LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO IRIZPENA EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAN

Euskadiko Eskola Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen Aurreproiektuari buruz emandako irizpenak administrazioaren ordezkarien, patronal pribatuen eta enpresa-erakundeen ordezkarien aldeko botoak baino ez ditu izan.

Lege-iragazkia kontuan hartu ez duen aurreproiektua

Eusko Jaurlaritzak gizarteari eta Euskadiko Eskola Kontseiluari eztabaidarako helarazi dien dokumentuak ez du kontuan hartu Eusko Jaurlaritzak berak egindako txosten juridikoa; horregatik, joan den ostegunean egin zen osoko bilkura atzeratzea eskatu genuen, legezko berme guztiak jasotzen dituen dokumentu bat jaso arte.

Hala ere, EEKko presidenteak ez zien Euskal Eskola Publikoko familien ordezkariei parte hartzen utzi bozketa egin aurretik, eta ez zion jaramonik egin osoko bilkura atzeratzeko eskaerari.

Boto partikularra

Aurreproiektuaren balorazio positiboa egiten duen irizpenaren aurkako botoa emateaz gain, boto partikularra eman dugu Aurreproiektu hori erretiratzea eskatuz, honako arrazoi hauengatik:

1. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Legearen Aurreproiektuak ez die erantzuten euskal hezkuntza-sistemaren beharrei, eta ez dakar inolako aurrerapenik indarrean dagoen legearekiko. Egungo sistema duala blindatzera mugatzen da, euskal hezkuntza-sistemaren pribatizazioa azpimarratuz.
2. Ez die erantzuten Euskal Eskola Publikoaren beharrei, eta ez du euskal hezkuntza-sistemaren ardatz bihurtzen.
3. Ez du kontuan hartu Eusko Jaurlitzako Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzako Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzak egindako nahitaezko txosten juridikoa.

NOTA DE PRENSA

LA REPRESENTACIÓN DE LA EDUCACION PUBLICA RECHAZA EN BLOQUE EL DICTAMEN DE ANTEPROYECTO DE LA LEY DE EDUCACION EN EL CONSEJO ESCOLAR DE EUSKADI

El dictamen del Consejo Escolar de Euskadi sobre el Anteproyecto de Ley de Educación del País Vasco solo ha contado con los votos favorables de representantes de la administración, las patronales privadas y de los organismos empresariales.

Un anteproyecto que no ha tenido en cuenta el filtro legal

El documento que el Gobierno vasco ha hecho llegar a la sociedad y al Consejo Escolar de Euskadi para su debate, no ha tenido en cuenta el informe jurídico elaborado por el propio Gobierno vasco, por ello, solicitamos el aplazamiento del pleno que se celebró el pasado jueves a la espera de recibir un documento con todas las garantías legales.

No obstante, la presidenta del CEE no permitió la intervención de las representantes de las familias de la Escuela Pública Vasca antes de proceder a la votación, e hizo caso omiso a la petición de atrasar el pleno.

Voto particular

Además de votar en contra del dictamen, que valora positivamente el Anteproyecto, hemos emitido un voto particular solicitando su retirada por las siguientes razones:

1. El Anteproyecto de Ley de Educación del Gobierno vasco no da respuesta a las necesidades del sistema educativo vasco ni supone ningún avance con respecto a la ley en vigor. Se limita a blindar el sistema dual actual profundizando en la privatización del sistema educativo vasco.
2. No da respuesta a las necesidades de la Escuela Pública Vasca ni la convierte en eje del sistema educativo vasco.
3. No ha tenido en cuenta el informe jurídico preceptivo elaborado por la Dirección de régimen jurídico y servicios de la Viceconsejería de Administración y Servicios del Departamento de Educación del Gobierno vasco.